

3000 personas se manifiestan en Donostia por la paralización de la pasante de metro

SATORRALAIA :: 20/11/2017

Más de 3000 personas se manifestaron el sábado por la tarde en la marcha convocada por Satorralaia para rechazar el inicio de las obras de la pasante de Metro en Donostia

[Euskara]

Satorralaia bizilagunen mugimenduak deituta, 3000 lagunetik gora manifestatu dira gaur arratsaldean Antiguatik Alderdi Ederrera Donostian Metroaren obrak hasteko Eusko Jaurlaritzak duen asmoa arbuiatzeko eta jendartean desadostasun zabala pizten duen proiektu hori geldiaraztea exijitzeko. Manifestazioa arratsaldeko 5etan Antiguako elizatik abiatu da, "STOP METROARI, INPOSAKETARIK EZ!" zioen pankarta buruan, eta Artzai Onaren Plazan eta hiri-erdialdeko kaleetan jende gehiago bildu da, bulebarrera iristean 3000 lagun inguru elkartu dituen mobilizaziora. Eskuetan "STOP Metroari" zioten ehundaka kartel hartuta eta Metroaren aurkako oihu eta kanta ugarirekin lagunduta egin dugu Metroaren inposaketaren aurkako aldarria. Aldi berean, talde batek txalupa batekin egin du protesta, Kontxako badian barrena Metroaren aurkako pankarta eta banderolak erakutsiz.

Gaurko manifestazio jendetsuaren ondoren, Satorralaia bizilagunen mugimenduak datozen egunetan Antiguako Metroaren eraikuntza lanen hastapena eragozteko egingo diren mobilizazio eta ekintzetan partehartzera dei egiten du: honi dagokionean, denon artean Metroa gelditzea badagoela adierazi nahi dugu eta lanak hasiko balira horiek geldiarazteko obraren hastapen-gunera mobilizatzeko urjentziazko deialdia egingo da. Halaber, datorren ostegunean arratsaldeko 5etan Zarautz Etorbideko eremu kaltetuan egingo den asanbladara biltzeko dei egiten diogu jende guztiari (Zarautz etorbidearen 60 zenbakiaren ondoan).

Berriro diogu: Euskal Gobernuak ezin du Metroaren pasantea indarrez inposatu eta proiektua berehala gelditu beharra dago, Donostian garraio publikoko soluzio egokienaren inguruan gizarte-eztabaida eta herritarren partaidetza prozesu bat abian jartzeko. Herritarren gehiengoak Donostian Metroaren pasantea eraikitzeke egitasmoaren kontrako iritzia du, xahutzailea, behar gabekoa eta inposatua delako. Donostiak garraio publikoko sare nahiko ona du eta mugikortasuna hobetzeko badira soluzio eraginkorragoak eta arazoizkoagoak: autobusa da egun hiriko mugikortasunari dagonionean aukera onena, eta funtsean Topoaren eta Dbus-en arteko aldaketa gune txikiak sortzea da gakoa, era honetan Topoaren eskualdeko bidaiariei hiriko zonalde ezberdinetara eta lantokietara maiztasun handiko autobusez iristeko erraztasunak emateko. EuskoTrenen sareari dagokionez, beharrezkoa den zatietan trenbidearen bikoizketak egitea eta Pasai Antxon edota Errondoko Pasealekuan Topoa hirian integratzeko soluzioak ematea askoz ere interesgarriagoa da, Kontxako Pasealekuraino zeharo behar gabekoa den metro baten eraikuntzan 200 milioi euro xahutzea baino.

Gogor salatu nahi dugu, bestalde, Eusko Jaurlaritzak inposaketa onartezin hau zurrizteko asmoz proiektuaren izena aldatu eta metroaren ordeztu "Topoaren saihebidetza" hitzegiten

duela, jakin badakielako metroaren egitasmoak Gipuzkoako eta Donostiako herritarren oniritzirik ez duela jasotzen: Donostian egin asmo duten pasante edo igarobidea Metroa da, ez zaitzatela engaina!

Donostian Metroaren pasantea gelditzeko Satorralaia bizilagunen mugimendua

[Castellano]

3000 personas se manifiestan en Donostia por la paralización de la pasante de metro

Más de 3000 personas se manifestaron el sábado por la tarde en la marcha convocada por el movimiento vecinal Satorralaia para rechazar el inicio de las obras de la pasante de Metro en Donostia anunciado por el Gobierno Vasco y exigir nuevamente la paralización de este proyecto que despierta un amplio desacuerdo social. La manifestación ha partido a las 17:00h desde la iglesia del Antiguo encabezada por una pancarta con el lema “¡PAREMOS EL METRO, BASTA DE IMPOSICIONES!” y se ha dirigido al Centro de la ciudad, donde más gente se ha unido a la movilización a su paso por la Plaza del Buen Pastor y las calles del centro de Donostia, reuniendo al final de la marcha en el boulevard y Alderdi Eder alrededor de 3000 personas . Los/as manifestantes han mostrado su rechazo a la imposición del proyecto portando cientos de carteles con el lema “STOP Metroari” y coreando numerosas consignas y canciones reivindicativas. A su vez un grupo de personas ha realizado la protesta desde una chalupa que ha recorrido la bahía de la Concha mostrando banderolas y pancartas contrarias a la pasante de Metro.

Tras la nutrida manifestación de hoy, el movimiento vecinal Satorralaia hace un llamamiento a participar en las acciones y movilizaciones que se realizarán en las próximas fechas para impedir el inicio de los trabajos anunciados por el Gobierno Vasco en el barrio del Antiguo. A este respecto, queremos manifestar que entre todos y todas parar el Metro es posible y en caso de inicio de obras se realizará un llamamiento de urgencia para movilizarse a la zona de inicio de obras para paralizar los trabajos. Asimismo, llamamos unirse a la asamblea que se realizará el próximo jueves a las 17h en la zona afectada de la Avenida de Zarautz (junto al nº 60 de la avenida de Zarautz).

Insistimos una vez más: el Gobierno Vasco no puede imponer la pasante de Metro a la fuerza y el proyecto debe paralizarse inmediatamente para abrir un proceso de debate y participación social sobre la mejor solución de transporte público en Donostia. La mayoría de la población se muestra contraria a la construcción de un Metro en Donostia por ser una obra innecesaria, impuesta y un derroche. Donostia dispone de una red de transporte público relativamente buena y existen soluciones más eficaces y racionales para mejorar la movilidad: el bus es hoy la mejor opción en movilidad urbana y la clave radica en coordinar el Topo y las principales líneas de Dbus, creando pequeños centros de transbordo (Topo-Bus) para facilitar a los/as usuarios/as comarcales del Topo acceder a las distintas zonas y lugares de trabajo de la ciudad en autobuses con buenas frecuencias. En cuanto a la red de EuskoTren, una duplicación de la vía donde sea necesario y una mejora de la integración urbana del Topo en zonas como Pasaia o el Paseo de Errondo son mucho más interesantes que derrochar 200 millones de euros en la construcción de un metro hasta el Paseo de la Concha, que es absolutamente innecesario.

Asimismo, denunciaremos nuevamente la manipulación con la que el Gobierno Vasco pretende lanzar una cortina de humo sobre esta imposición inaceptable, puesto que ha cambiado el nombre del proyecto de Metro para hablar de “variante del Topo” a sabiendas de que la pasante de metro cosecha suspensos en la opinión de gipuzkoanos y donostiarras. La pasante que pretende construir en Donostia es un Metro, ¡que no te engañen!

<https://eh.lahaine.org/3000-personas-se-manifiestan-en>